

FUNTSEZKO JARDUERAK



Enpresaren funtsezko jarduerak jarduera nagusiak dira, etekinak ekartzen dizkionak, eta ezin dira beste enpresen esku utzi, enpresaren negozio-ereduak funtziona dezan. Hauek zehaztea ezinbestekoa da balio proposamena aurrera ateratzeko, eta gure kasuan ekoizpena da horretarako jarduera garrantzitsuena.

Hasi aurretik, gure balio proposamena gogoratu behar da, hau da, auto seguru eta ez-kutsakor bat sortzea, horretarako zer beharko dugun zehazteko.

Gure kasuan, funtsezko jarduera ekoizpena da, hau da, autoen diseinu, ekoizpena eta entregatzea, gure enpresaren muina autoak eraikitzea baita. Honek ahalbideratuko gaitu gure balio-proposamena betetzera. Lehenengo hilabeteetan, 15 auto ekoitziko ditugu, 10 auto basiko eta 5 familiar modelokoak. Modelo hauek gure merkatu segmentuaren araberakoak dira, gure bezero gazteenak kontuan hartuz sortu dugu basikoa, eta, familia bat duten bezero helduagoentzat dago zuzendua modelo familiarra.

Diseinua, guk egingo dugu ingeniari talde baten laguntzarekin. Ondoren, beste ingeniariak arduratuko dira autoa eraikitzeaz, funtsezko elkarteetan zehaztutako enpresei esker lortutako materialekin, eta autoaren softwarea Nvidiarekin batera diseinatu eta sortuko dugu. Autoa ekoitzi ondoren kalitate eta segurtasun testak ere aurrera eramango ditugu gidari eta bidaiarien erosotasun eta segurtasuna bermatzeko, gure balio proposamena betetzeko.

Plataformak edo sareko jarduerak ere egingo ditu gure enpresak, webgune bat eta aplikazio bat izango ditugu eta, baita kontu ugari ere sare sozial desberdinetan. Bertan, bezeroek haien iritziak ipiniko dituzte edota autoaren funtzionamenduari buruzko edozein duda. Hala ere, hau ez da jarduera nagusia izango, beraz, beste enpresa baten esku utzi dezakegu, Nvidia adibidez, izan ere, nahiko enpresa txikia izango garenez, ez dugu baliabide nahikoa izango etengabe webgunearen mantenua gure kabuz bermatzeko.

Arazoen konponketak kontzesionarioaren bidez bideratuko ditugu, bezeroek bertara joateko aukera izango baitute autoaren arazoren bat konpontzeko beharra dutenean. Horretaz gain, duten arazoa sinplea baldin bada, zalantza bat adibidez, enpresaren telefono zenbakia eta posta elektronikoa eskura izango dituzte etxetik edo edozein tokitatik konpontzeko arazoa. Hau ere ez da guztiz funtsezkoa izango, nahiz eta garrantzitsua izan.

Ondorioz, gure funtsezko jarduera autoen diseinu eta ekoizpena izango da, eta beste jarduerak, nahiz eta garrantzitsuak ere izan, beste enpresen esku utzi izango

ditzakegu. Horrela gure balio proposamena aurrera eramatea errazagoa egingo zaigu, ez baita errealista gure enpresa hasiberriak jarduera horiek guztiak aurrera eramatea. Gainera, gure elkarreak enpresa ezagunekin egingo ditugunez, bezeroak erakartzea errazagoa izango da.

